

UDALAREN OSOKO BILKURA

Saioaren akta

Ezohiko bilkura

Data: 2019ko urriaren 30a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2019ko azaroaren 13ko onarpen-saioko aktan dauden iruzkinak hartzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezon alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Bertaratu ezin izan direnak: Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Gai-zerrenda

Gai bakarra: 2020ko ekitaldiko ordenantza fiskalak aldatzeko behin-behineko onarpena, ondasun higiezinaren gaineko zergaren hiri ondasunen gaineko zerga finkatzen duena.

Saioaren izaera eta bere gai-zerrenda kontuan hartuta, jarraian ematen dira hartutako erabakien deliberazioa eta bozketa.

Gai bakarra: 2020ko ekitaldiko ordenantza fiskalak aldatzeko behin-behineko onarpena, ondasun higiezinaren gaineko zergaren hiri ondasunen gaineko zerga finkatzen duena.

Alkate jaunak aurrez aurkeztu eta partzialki transkribatzen den karga-tasaren inguruko proposamena irakurri du: 2020ko ekitaldiko ordenantza fiskalen aldaketa behin-behinean onartzea; aldaketak ondasun higiezinaren gaineko zergaren hiri ondasunen gaineko % 22ko karga-tasa berria ezartzen du. Eta gainerako ordenantza fiskalen baliozkotasuna luzatzea.

Salvador jauna (zinegotzi ez atxikia): Ez dut ezer esaterik Aurreratzen dizuet; ez dut proposamen hau babestuko.

Gamarra López Brea jauna (PSE-EE PSOE): Talde sozialista abstenitu egingo da; gure proposamena 0,21eko tasa ezartzea zen eta horregatik abstenituko gara.

Villanueva Gutierrez jauna (EH Bildu Oion): Gure proposamena da 0,25eko karga-tasa ezartzea eta hobaria taula baten arabera finkatzea zen, errenta txikia duten familientzat zergaren kuotaren Foru Arauak adierazten duen moduan.

Alkate jauna: Hobari-proposamenak ez du tokirik; gaian ez da hobaririk aurreikusten eta ez zen hitz egin ez ohiko saioan ezta ezohiko batzordean ere karga-tasa bat ezartzeaz gain beste ezer ezartzeaz.

Villanueva Gutierrez jauna (EH Bildu Oion): Ez dakit nondik atera duzun hori. Gure karga-proposamenak hobaria dakar inplizituki. Baina ez dut denbora gehiago alferrik galduko.

Aurrekariak:

1. 2020ko ekitaldiko ordenantza fiskalak aldatzeko espediente; ondasun higiezin gaineko zergan karga-tasa berria ezartzea, zeinak barne hartzen dituen hiri ondasunen aurrekontu egonkortasunari buruzko kontu-hartzailera txostena eta idazkaritza txostena.
2. Aldaketaren motibazioa da Arabako Foru Aldundiak baloreen aurkezpen berri bat egitea.
3. Aplikagarriak dira Toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauren 15. eta 16. artikulua eta Ondasun higiezin gaineko zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauren 14. artikulua.
4. 2019ko urriaren 28ko Ekonomia eta Finantzetako Informazio Batzordearen ezohiko saioan egindako proposamena da; ondasun higiezin gaineko zergaren hiri ondasunen gaineko % 22ko karga-tasa berria ezartzen du.

Hau erabaki da:

- 1) 2020ko ekitaldiko ordenantza fiskalen aldaketa behin-behinean onartzea; ondasun higiezin gaineko zergaren hiri ondasunen gaineko % 22ko karga-tasa berria ezartzen du. Eta gainerako ordenantza fiskalen baliozkotasuna luzatzea.
- 2) Erakusketa publikoan jartzea Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauren 15. eta 16. artikuluek adierazten duten moduan eta epean.
- 3) Hitzarmena behin betikoa izango da ez bada erreklamaziorik aurkezten.
- 4) Behin betiko onarpenerako hitzarmena arau-forma eta epean argitaratzea.
- 5) Jakinaraztea Arabako Foru Aldundiari, Tokiko Zerga Zerbitzuei eta katastroari.

Aldeko botoak 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutierrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV);

Abstentzioak: 2 (bi); Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Aurkako botoak 3 (hiru); José Manuel Villanueva Gutierrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 20:40ak direnean (bilkura 20:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oion, 2019ko azaroaren 4a.

Udaleko idazkaria:

OE Alkatea: